



2012-02-12

LITERATURA. 'LIMOI BAT IMINTZIORIK EGIN GABE JATEN BADUZU'

# Imintziorik egin gabe irakurtzen baduzu

IRATXE ESNAOLA

Egilea: Sergi Pamies.

Itzultzailea: Gerardo Markuleta.

Argitaletxea: Txalaparta.

Nagusiki katalanez idazten duten egungo idazleen artean Quim Monzoren izenak egiten badu dirdirarik gehien, ez dabilkio urrun Sergi Pamiesen (Paris, 1960) izena. Pamiesen lan guztiak izan dira gaztelerara eta frantsesera itzuliak, baita beste hainbat hizkuntzatarara ere. Hiru eleberri ditu idatziak gaurdaino: *La primera pedra* (1990); *L'instint* (1992) eta *Sentimental* (1995). Baina kontakizun laburrengatik da, batez ere, ezagun. Sei ipuin liburu argitaratu ditu orotara, eta *La Vanguardia*-n eta beste zenbait komunikabidetan idatzizko kolaborazioak egitetik bizi da. 2006an argitaratu zen Gerardo Markuleta itzuli duen *Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu* ipuin bilduma hau da euskarara ekarritako haren lehen lana. Benetako arrakasta ekarri zion bilduma, hain zuzen ere. Pamiesenak dira, halaber, *La gran novella sobre Barcelona* (1997) eta *La bicicleta estàtica* (2010), besteren artean.

Liburuko ipuinetan lehenengo pertsona narratzaileak dira nagusi. Egia da narratzaile gehienek antzekotasunak dituztela beren artean. Gizonak dira ia denak, gristasuna darie, bakar antzean daude eta ezer heroikorik ez egiteko borondate irmoa dute. Liburua irekitzen duen aipauk honela dio: «—Ez duzu errebelatzeko asmorik izango, ezta? —Zeren aurka?» ( *Doctor Katz* marrazki bizi dunden telesailako elkarrizketa)». XX. mendean letra larriz idatzitako idealentzat lekurik ez dela iradokitzen diguten hitzak dira, eta horixe islatzen da pertsonaiengan ere. Hori konpentsatzeko, zirkulu sentimental eta afektiboan asko emateko gai diren pertsonaiak topatuko ditugu. Pintzelada soil-soilez marrazten ditu egileak, abilezia, aski duela keinu bat edo ekintza bat karakterea adierazteko. Pertsonaien beste ezaugarri bat da beren buruak baino ingurukoak erakusten dizkigutela, eta, erakuste horretan, familiaren instituzioa oso presente dago. Aitaren rola zenbait ipuinetan errepikatu egiten da, eta seme-alabekiko duten ardura agerian geratzen. Ondokoak zaintzeko afanak forma ezberdinak hartzen ditu. Ironiari bide eginez batzuetan; absurdoari, bestetan. Irribarre kaustiko oso zenbatu baina eraginokorrak erakarriz, inoiz.

Autorearen beraren kezka iturriei tiraka, bigarren pertsonaia mota bat bereiz dezakegu. Fikzioari loturiko pertsonaia, idaztearen ekintzak dakartzan barne tirabirekin. Idazleaz espero dena eta berak benetan kontaktu nahi duena nola uztartu? Idazketa prozesuaren pausoz pausoko disezioa dakar *Gure Gerra* ipuinean, eta idazleak errealtatea eta fikzioa nahasteko duen eritasuna *Topa* kontakizunean. Pertsonaiez aparte, gauza txikien idazketa azpimarratuko nuke liburuan, autorearen estilo markatzaile. Txikitasuna fokatu, detailearen kontenplazioari arreta lotu eta txikitasunetik kontzeptu zabalago batera alde egiteko iradokizuna egitea da egilearen proposamena. Esate batera, kanilatik erortzearen den eta erortzen den ur tanta batean bizi zikloa irudikatzea eta haren bitartez gure bizitzaren iragatearen laburdura iradokitzea. Ipuin onenek ( *Esperimentua*, *Beste bizitza*) atzean uzten duten ubera sakona eta iraunkorra da, teknika horri esker. Beste batzuetan, ordea, azalerago geratzen da kontakizuna (*Putzua*, *Jolasa*, *Monobolumena*), nahiz eta idazketa zehatza, neurtua eta zuzena izan. Azken horiek anekdota bitxietan geratzeko arriskua dute, putzu sakonagoak ireki gabe. Baina, esan bezala, irakurketa amaieran paisaia zabaltzen dituzten ipuinek merezi dute. Berme nahikoa dira, gainera, ustez, liburu hau imintziorik egin gabe irakurriko ez duzula ziurtatzeko.